



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko otsailaren 25a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Azkoiengo Udalerriko 155 hektarea herrilur onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituenak. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

—Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, bizitzeko beharkizuna dagokionean. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (12. or.).

—Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (24. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (25. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (26. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilerari eta garapenera susta ditzan. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (27. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak. Hezkuntza Batzordeak onetsia (27. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentsat. Osoko Bilkurak bazter utzia (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra. Osoko Bilkurak bazter utzia (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpleguko zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan. Mozioa erretiratzea (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan. Mozioa erretiratzea (29. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralar-ko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak. Galdera erretiratzea (30. or.).
- Galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (30. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria izendatzeko (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Azkoiengo Udalerriko 155 hektarea herrilur onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Azkoiengo Udalerriko 155 hektarea herrilur onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Azkoiengo Udalerriko 155 hektarea herrilur onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Azkoiengo Udalak eskatu du udalerriko herrilurretako 155 hektarea onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa egitea, gero saltzeko, lurzati berrantolamenduko prozesu bati bide emateko. Berrantolamenduak 1.398 hektareako azalera ukitzen du eta horietatik 937 ureztalur bihurtzea dakar berekin, eta baita XIX. mendetik datorren liskar bat, horietako 400 hektareari buruzkoa, konpontzea.

Lehenago, Nafarroako Gobernuak 2008ko ekainaren 17ko Erabakiaren bitartez "Azkoiengo Cascajo alderdiko herrilurretako ondasunak berreskuratzeko oinarri orokorrak" onetsi zituen, zeuden arazoak konpondu eta auzitara inork jo ez zezan. Ukitu gehienak oinarri horietara bildu dira, Azkoiengo Udalak herrilur horien gainean eperik gabeko eskubideak dituztenekin egindako hitzarmen pribatuen bidez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Azkoiengo Udalak desafektatzeko asmoa duen eremuak lur-

zati txikiaren mugak gainditzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Herrilurraren onura publikoa deklaratzeko eta desafektatzeko.

1. Onura publikoko deklaratzeko dira Azkoiengo Udalaren herrilurretako 155 hektarea eta desafektatu egiten dira. Lur horiek foru lege honen eranskinean deskribatzen diren lurzatiak dira.

2. Lur horiek herrilurtzat joko dira foru lege honetako 2. artikuluko baldintzetan saldu arte.

2. artikulua. Zuzenean saltzeko baimena.

Azkoiengo Udalari baimena ematen zaio 155 hektarea saltzeko. Hektarea horiek bat datoz partikularrak, bere hitzarmen pribatuan, Udalari herrilur gisa 100eko 40an egokitu zaiona erostea erabaki duenekin. Betiere, baldintza hauek bete behar dira:

a) Salmenta-hitzarmenetan, herrilurra izanik, sartua baldin bada finka osoaren eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidea Azkoiengo Udalaren aldekoa dela dioen klausula bat, ondoren eskualdaketarik egiten bada.

b) Lurzati osoak salmenta-prezio mugatua izatea lehenbiziko eta hurrengo eskualdaketetan, eta edozein gainprezio, sari edo diru-kopuru eskuratzeko debekatua izatea, Udalak eta partikularretako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren zehazten diren kopuruen ordez.

c) Eroslehentasunerako eta atzera eragiteko eskubidearen klausula jasotzea bai lurzati berrantolamenduaren ondorioz notario aurrean sinatutako dokumentuetan, bai Jabetza Erregistraoan.

Azken xedapenetan lehena. Aplikazioa eta garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

POLIGONOA	LURZATIA	Azalera osoa	%40	Desafektatzeko azalera
12	3	10662,701	%40	4265,0804
12	5	12563,641	%40	5025,4564
12	7	3221,759	%40	1288,7036
12	8	4493,859	%40	1797,5436
12	9	7002,347	%40	2800,9388
12	10	12457,783	%40	4983,1132
12	11	10378,44	%40	4151,376
12	12	4396,774	%40	1758,7096
12	13	26442,069	%40	10576,8276
12	14	2898,338	%40	1159,3352
12	16	4429,727	%40	1771,8908
12	17	8419,657	%40	3367,8628
12	18	9006,506	%40	3602,6024
12	24	5713,045	%40	2285,218
12	25	6774,369	%40	2709,7476
12	38	6676,429	%40	2670,5716
12	39	23058,304	%40	9223,3216
12	40	9341,242	%40	3736,4968
12	41	29295,746	%40	11718,2984
12	42	11354,671	%40	4541,8684
12	43	10247,576	%40	4099,0304
12	44	11479,306	%40	4591,7224
12	45	3880,781	%40	1552,3124
12	47	25399,1	%40	10159,64
12	48	22006,221	%40	8802,4884
12	84	3918,988	%40	1567,5952
12	86	9017,555	%40	3607,022
12	91	5757,854	%40	2303,1416
12	92	9569,49	%40	3827,796
12	93	10289,712	%40	4115,8848
12	94	18162,585	%40	7265,034
12	99	54604,413	%40	21841,7652
12	103	8920,101	%40	3568,0404
12	115	15359,63	%40	6143,852
12	116	18129,073	%40	7251,6292
12	119	4492	%40	1796,8
12	121	16882,775	%40	6753,11
12	128	7184	%40	2873,6
12	131	5332,801	%40	2133,1204
12	139	16638,749	%40	6655,4996
12	147	17360,994	%40	6944,3976
12	164	65828,118	%40	26331,2472
12	174	8369,114	%40	3347,6456
12	175	13113,04	%40	5245,216
12	176	36919,472	%40	14767,7888
12	177	10433,732	%40	4173,4928
12	178	22691,528	%40	9076,6112
12	180	9258,545	%40	3703,418
12	181	8595,148	%40	3438,0592
12	195	113783,388	%40	45513,3552
12	199	12610,206	%40	5044,0824

12	218	12752,525	%40	5101,01
12	220	10683,873	%40	4273,5492
12	244	5059,664	%40	2023,8656
12	245	10291,549	%40	4116,6196
12	271	3381,399	%40	1352,5596
12	277	24919,409	%40	9967,7636
12	278	26454,465	%40	10581,786
12	283	16570,888	%40	6628,3552
12	284	19258,251	%40	7703,3004
12	300	3955,978	%40	1582,3912
12	311	7039,673	%40	2815,8692
12	312	3756,839	%40	1502,7356
12	313	5851,422	%40	2340,5688
12	314	11156,611	%40	4462,6444
12	315	11604,016	%40	4641,6064
12	321	12384,073	%40	4953,6292
12	324	10540,587	%40	4216,2348
12	329	63247,978	%40	25299,1912
12	330	6600,297	%40	2640,1188
12	332	23944,81	%40	9577,924
12	333	21844,581	%40	8737,8324
12	334	24802,987	%40	9921,1948
12	335	17155,576	%40	6862,2304
12	336	10712,679	%40	4285,0716
12	337	13457,383	%40	5382,9532
12	338	103682,21	%40	41472,884
12	339	16619,029	%40	6647,6116
12	342	4251,122	%40	1700,4488
12	343	8602,234	%40	3440,8936
12	345	11400,675	%40	4560,27
12	360	5207,412	%40	2082,9648
12	361	12186,639	%40	4874,6556
12	362	10049,261	%40	4019,7044
12	363	6628,953	%40	2651,5812
12	369	8804,393	%40	3521,7572
12	370	7520,459	%40	3008,1836
12	371	4844,503	%40	1937,8012
12	374	3624,1	%40	1449,64
12	375	20269,906	%40	8107,9624
12	384	5132,462	%40	2052,9848
12	386	9291,277	%40	3716,5108
12	387	4707,68	%40	1883,072
12	389	2643,859	%40	1057,5436
12	390	5825,095	%40	2330,038
12	391	14974,028	%40	5989,6112
12	392	6460,032	%40	2584,0128
12	393	7164,412	%40	2865,7648
12	395	14452,157	%40	5780,8628
12	396	20669,41	%40	8267,764
12	399	32907,559	%40	13163,0236
12	400	11269,421	%40	4507,7684
12	403	9954,722	%40	3981,8888
12	405	13024,98	%40	5209,992
12	406	7670,865	%40	3068,346
12	412	1278,425	%40	511,37

12	414	1270,678	%40	508,2712
12	418	7059,764	%40	2823,9056
12	419	14737,874	%40	5895,1496
12	421	9861,861	%40	3944,7444
12	422	3872,028	%40	1548,8112
12	423	4059,383	%40	1623,7532
12	424	4049,934	%40	1619,9736
12	426	12667,846	%40	5067,1384
12	428	20172,544	%40	8069,0176
12	431	11452,365	%40	4580,946
12	432	33507,915	%40	13403,166
12	432	33508,26	%40	13403,304
12	433	14439,193	%40	5775,6772
12	434	5700,369	%40	2280,1476
12	438	5458,605	%40	2183,442
12	439	5533,375	%40	2213,35
12	442	48519,35	%40	19407,74
12	443	9357,149	%40	3742,8596
12	444	18748,953	%40	7499,5812
12	445	4716,274	%40	1886,5096
12	446	5071,676	%40	2028,6704
12	447	5652,533	%40	2261,0132
12	458	3848	%40	1539,2
12	465	6147,047	%40	2458,8188
12	487	2079,961	%40	831,9844
12	489	3836,05	%40	1534,42
12	492	3513,984	%40	1405,5936
12	493	2950,56	%40	1180,224
12	494	13033,345	%40	5213,338
12	498	21059,585	%40	8423,834
12	625	4561,801	%40	1824,7204
12	626	19050,698	%40	7620,2792
12	669	29523,52	%40	11809,408
12	682	31547,065	%40	12618,826
12	684	3151,023	%40	1260,4092
12	686	33422,154	%40	13368,8616
12	700	9315,85	%40	3726,34
12	701	17600,266	%40	7040,1064
12	706	23585,295	%40	9434,118
12	707	8574,431	%40	3429,7724
12	708	7276,841	%40	2910,7364
12	709	6286	%40	2514,4
12	714	2694	%40	1077,6
12	5043	4348	%40	1739,2
12	5044	2987	%40	1194,8
12	5121	10806,055	%40	4322,422
13	14	5622,081	%40	2248,8324
13	16	7708,214	%40	3083,2856
13	25	18351,995	%40	7340,798
13	39	48863,428	%40	19545,3712
13	40	50014,522	%40	20005,8088
13	42	11128,065	%40	4451,226
13	93	15133,16	%40	6053,264
13	94	11332,695	%40	4533,078
13	95	10068,95	%40	4027,58

13	96	44108,21	%40	17643,284
13	97	18162,836	%40	7265,1344
13	102	24448,224	%40	9779,2896
13	103	13639,571	%40	5455,8284
13	104	14430,642	%40	5772,2568
13	105	14688,443	%40	5875,3772
13	106	23655,231	%40	9462,0924
13	107	16368,35	%40	6547,34
13	108	8824,132	%40	3529,6528
13	109	11116,608	%40	4446,6432
13	121	57628,892	%40	23051,5568
13	122	32324,231	%40	12929,6924
13	123	29015,927	%40	11606,3708
13	126	28903,901	%40	11561,5604
13	127	24696,549	%40	9878,6196
13	128	38443,304	%40	15377,3216
13	130	17512,791	%40	7005,1164
13	131	15608,386	%40	6243,3544
13	132	21233,16	%40	8493,264
13	141	30009,751	%40	12003,9004
13	237	26223,938	%40	10489,5752
13	238	13856,127	%40	5542,4508
13	239	13088,588	%40	5235,4352
13	256	5539	%40	2215,6
14	2	17360,717	%40	6944,2868
14	3	14363,464	%40	5745,3856
14	4	15855,372	%40	6342,1488
14	5	10759,007	%40	4303,6028
14	6	7537,136	%40	3014,8544
14	9	16618,625	%40	6647,45
14	10	9599,196	%40	3839,6784
14	11	9406,832	%40	3762,7328
14	12	8725,713	%40	3490,2852
14	13	13606,015	%40	5442,406
14	14	10794,348	%40	4317,7392
14	16	8987,383	%40	3594,9532
14	17	4352,402	%40	1740,9608
14	19	14309,201	%40	5723,6804
14	20	21962,396	%40	8784,9584
14	21	18320,051	%40	7328,0204
14	22	24218,003	%40	9687,2012
14	23	11768,544	%40	4707,4176
14	24	7121,513	%40	2848,6052
14	25	9824,012	%40	3929,6048
14	26	10131,722	%40	4052,6888
14	28	12192,2	%40	4876,88
14	35	18261,976	%40	7304,7904
14	36	5179,719	%40	2071,8876
14	42	9462,686	%40	3785,0744
14	48	9794,469	%40	3917,7876
14	50	4991,556	%40	1996,6224
14	51	5368,124	%40	2147,2496
14	52	27534,542	%40	11013,8168
14	53	8973,951	%40	3589,5804
14	55	3578,111	%40	1431,2444

14	56	1532,163	%40	612,8652
14	57	6787,345	%40	2714,938
14	58	3011,471	%40	1204,5884
14	60	5192,075	%40	2076,83
14	69	36025,24	%40	14410,096
14	70	17651,45	%40	7060,58
14	73	11644,213	%40	4657,6852
14	75	27500,089	%40	11000,0356
14	76	9527,364	%40	3810,9456
14	77	18714,784	%40	7485,9136
14	78	4812,579	%40	1925,0316
14	79	7398,787	%40	2959,5148
14	80	9326,938	%40	3730,7752
14	81	4928,679	%40	1971,4716
14	82	5305,934	%40	2122,3736
14	84	4002,45	%40	1600,98
14	86	36842,845	%40	14737,138
14	87	14556,819	%40	5822,7276
14	97	7883,758	%40	3153,5032
14	100	14619,206	%40	5847,6824
14	101	15266,375	%40	6106,55
14	110	10308,741	%40	4123,4964
14	111	7778,158	%40	3111,2632
14	112	7498	%40	2999,2
14	117	33335,941	%40	13334,3764
14	119	3975	%40	1590
14	124	6826,549	%40	2730,6196
14	165	14272,31	%40	5708,924
17	5	9062,831	%40	3625,1324
17	6	7291,01	%40	2916,404
17	7	9924,089	%40	3969,6356
17	9	23421,511	%40	9368,6044
17	10	19178,842	%40	7671,5368
17	11	5777,292	%40	2310,9168
17	18	13985,748	%40	5594,2992
17	19	18313,657	%40	7325,4628
17	23	4649,23	%40	1859,692
17	24	4070,458	%40	1628,1832
17	25	4011,122	%40	1604,4488
17	26	6346,103	%40	2538,4412
17	27	138925,978	%40	55570,3912
17	41	20574,905	%40	8229,962
17	42	1425,702	%40	570,2808
17	45	15411,694	%40	6164,6776
17	46	6185,327	%40	2474,1308
17	853	3225,695	%40	1290,278

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1996 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremuak osatzen dituzten herriak zerrendatu zituen, garai hartako legegileari egokiak iruditu zitzaizkion irizpide soziolinguistiko eta politikoen arabera.

Araudi hura onetsi eta hogeita hiru urte iragan direnean, bistakoa da Iruñerrian etengabeko hiribilbea osatu duten gizarte eta hirigintza garapenak izan direla.

Izan ere, gaur egun bada antzeko osagai soziologiko eta linguistikoak dituen "Iruñeko konurbazio" bat, gaur egun indarrean dagoen 1986ko Foru Legeak ezarritako hizkuntza eremuen banaketa berrikustea justifikatzen duena. Adibidez, konurbazio horretan izugarri igo da haurrak ikastetxe publikoetan euskaraz eskolatzeko eskaera. Hizkuntza eremuak egokitzeari eta berrikusteari dagokionez, "Iruñeko konurbazioa" eremu mistoan sartu beharko litzateke, Administrazioak gizartearen eskaerari erantzuteko.

Aldaketa horrek oztopoak kenduko ditu, Administrazioak eremu horretan derrigorrezko hezkuntza euskaraz egiteko dagoen eskaera kontuan hartu ahal izateko, zer herritan bizi den, horren arabera diskriminazio artifizial eta burokratikoak alde batera utzita.

Beharrezkoa da ere Foru Legea Nafarroako herrietako biztanleek agertutako borondatera egokitzea.

Foru Lege honen bidez eremu mistoan sartzen dira eremu ez euskaldunean dauden lau udalerrri, eta aurreikusten da beste lau udalerrri gehiago sartzeari; izan ere, udalerrri horietako biztanleek eremu mistoan sartzeko nahia adierazi dute Nafarroako Gobernuak 2008an euskararen egoera soziolinguistikoari buruz eginiko inkestan.

Azkenik, Foru Lege honen bidez Euskarari buruzko Foru Legea errealitate administratibo eta linguistikora egokitzen da.

Artikulu bakarra. Honela geldituko dira Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.1. artikuluko a) eta b) letrak:

"5. artikulua.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, Nafarroak ondoko eremuak ditu:

a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Aburregaina, Aburrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arantza, Arano, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Auritz/Burguete, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Igantzi, Imotz, Irañeta, Iriberrri, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte-Arakil,

Uitzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Zubieta, Zordia eta Zugarramurdi

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Odieta, Olaibar, Ollo, Oltza, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txu-

lapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Arangurengo, Belaskoaingo, Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.”

Azken xedapena. Foru lege honek 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, bizitzeko beharkizuna dagokionean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, ondok Foru Legea onetsi zuen: “Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, bizitzeko beharkizuna dagokionean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, bizitzeko beharkizuna dagokionean.

ZIOEN AZALPENEA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 56. artikulua ezartzen duenez, zerbitzu aktiboan dauden funtzionarioen betebeharra da, besteak beste,

“destinoko herrian bizitzea, bestelako baimenik ematen ez bada”.

Garai batean, betebeharrak hori exijitzeak zentzua bazuen ere, gaur egun ez du zentzurik; izan ere, aldaketak izan dira populazioaren lurralde-banaketa, hiriguneen konfigurazioan eta lan egiten duen populazioaren garraio sistemetan eta ohituretan. Halere, baliteke zenbait lanpostu betetzeko, eginkizunak zein diren eta eska daitekeen prestasuna zein den, beharrezkoa izatea lanpostuen titularrak egiaz bizitzea destinoko herrian. Hortaz, bidezkoa da kasuan kasuko administrazio publikoari esku ematea, destinoko herrian bizitzeko betebeharra exijitzeko, baldin eta beharrezkoa bada. Helburu horrekin ekin zaio Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko kasuko manuak aldatzeari.

Horrenbestez, bidezkoa da arau hori kentzea.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen da. Hona testu berria:

Bat. 56. artikuluko h) letra kentzea.

Bi. 58. artikulua idazketa hau izanen du:

1. Destinoko herria ez den beste batean bizitzeak ez du funtzionarioa salbuesten lan lekura garaiz iristeaz eta lanaldia nahiz karguaren berezko funtzioak zorrotz betetzeaz, eta ez du ekarriko ordainik ematea lan lekurako joan-etorriengatik.

2. Behar bezala justifikaturiko kasu batzuetan administrazio publikoek zilegi izanen dute funtzionarioei eskatzea destinoko herrian bizitzea, hala

behar izanez gero lanpostuaren funtzioengatik edo lanposturako eskaturiko dedikazioarengatik.

Hiru. 63. artikuluko g) letra aldatu da, eta idazketa hau izanen du:

“g) Estatutu honen 58.2 artikuluan xedatutakolari jarraituta ezarrita dauden kasuetan bizitzeko beharkizuna ez betetzea.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunen hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI

PARLAMENTU-TALDEEK ETA

CDN ETA IUN-NEB

FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

I. titulua aldatzeko zuzenketa. Proposatzen da izenburuan “eta esparrua”ren ordez “eta printzipioak” jartzea, halako moldean non I. titulua honela geldituko den:

“I. TITULUA

Foru Legearen xedea eta printzipioak”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

2. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI

PARLAMENTU-TALDEEK ETA

CDN ETA IUN-NEB

FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

I. tituluko I. kapituluaren barrenean artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“XX. Artikulua. Printzipioak.

Hona hemen foru lege honek oinarri dituen printzipioak:

A. Irisgarritasun unibertsala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasun eta erosotasun egoeran eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. *Ororentzako diseinua* estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen erabaki beharrekoak diren arrazoizko egokitzapenak egiteko.

B. Ororentzako diseinua: halako produktu, zerbitzu eta inguruneak proiektatzea eta merkaturatzea non irisgarriak eta ahalik eta erabiltzaile gehienek erabiltzeko modukoak izanen baitira. Produktu, zerbitzu edo ingurune bat guztientzako diseinatua izateko gomendagarriak diren arauak honakoak dira: erabilera parekagarrikoa izatea, bai eta malgua, sinplea eta intuitiboa; informazio hautemangarria eta errakuntza-tolerantzia eskaintzen duena, eta

irismen nahiz erabilerarako ahalegin fisiko, tamaina eta espazio txikiak eskatzen dituen.

C. Gizarteratzea: prozesu bat, zeinaren bitartez gizabanakoek erabat hartzen baitute parte bizi diren gizartean, edo ahalmen bat, bizitza ekonomiko, politiko eta kulturean modu eraginkorren parte hartzekoa. partaidetasun-prozesua ulertzen da prozesu gisa, zeinaren bitartez kontrolari eusten baitzaio bizitza sozial, politiko eta ekonomikoari eragiten dioten ekimen, erabaki eta baliabideen gain. Gizarteratzeak honako egintza hauek erakartzen ditu:

1. Lege-aldaketak.
2. Ezgaituek berek edo beren erakundeek parte hartzea.
3. Ezgaituek osatzen duten giza taldearen trebetasunak eta gaitasunak sustatzea.
4. Erkidego-izaerako loturak sortu eta sendotzea.
5. Ezgaitasun-egoeraren ondoriozko kalteberatasun-faktoreak murriztea.
6. Baliabideen aprobetxamenduan berrikuntza eta optimizazioa sustatzea.
7. Helburu kualitatiboetako lehentasuna ematea kuantitatiboan gainean.
8. Ikusmolde dimentsioaniztuna eta/edo diziplinartekoa ezartzea.
9. Beharrezko berezietarako berariazko erantzunak taxutzea.
10. Eragileen inplikaziorik handiena sustatzea (departamentuak, alorrak, entitateak, erakundeak).

D. Aukera-berdintasuna: ezintasunen batean oinarritutako ezein bereizkeriarik ez egotea, zuzenkerik zein zeharkakorik, eta ekintza positiboko neurriak hartzea, ezintasunen bat duten pertsonen bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean osoki parte hartzeko izan litzaketen edo dituzten desabantailak saihestu edo berdintzeko.

E. Bizitza beregaina: halako egoera non ezintasunen bat duten pertsonen euren bizitzaren gainean erabakitzeke ahalmena erabiltzen duten, eta komunitateko bizitzan parte hartze aktiboa duten, nortasuna libreki garatzeko eskubidearekin bat.

F. Elkarrizketa zibila: halako printzipioa zeinaren bitartez ezgaitasunen bat duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen baitute, legeek eta gainerako arauedapenek ezarritakoari jarraituz, ezgaitasunen bat duten pertsonen alorrean garatzen diren politika ofizialen prestaketa, gauzatze, jarraipen eta ebaluazioan.

G. Arrazoizko egokitzapenak: ingurune fisiko, soziala eta jarrerazkoa ezintasunen bat duten pertsonen behar espezifikoetara egokitzeko neurriak, zeinen bitartez modu eragingarri eta praktikoa eta aldaketa gehiegi egin beharrik gabe irisgarritasuna erraztea edo ezintasunen bat duen pertsonak gainerako herritarren baldintza beretan parte hartu ahal izatea lortuko baita.

H. Normalizazioa: halako printzipioa zeinaren arabera bizitza normala egin ahal izan behar baitute ezintasunen bat duten pertsonen, beren irismenean izanez beste edozein pertsona eskueran dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzuak.

I. Zeharkakotasuna: halako printzipioa zeinaren arabera administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez baitira mugatzen beren-beregi pertsona hauentzat pentsaturiko plan, programa eta ekintza berariazkoetara, baizik eta barnean hartzen baitituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak, jarduera publikoaren edozein esparrutakoak, betiere aintzat harturik ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrezkoak eta eskaerak.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

3. ZUZENKETA

**UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA**

2. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

2. artikulua amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

“Horrela, foru lege honen aplikazio-eremua honakoa izanen da:

- a) Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea.
- b) Urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak.
- c) Garraiobideak.
- d) Jendearentzat eskuragarri dauden ondasunak eta zerbitzuak.
- e) Administrazio publikoekiko harremanak.
- f) Unibertsitateak eta hezkuntza-sistema.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

4. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

3. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

5. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

4. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

6. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

5. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

7. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

6. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

8. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

II. titulua aldatzeko zuzenketa.

II. tituluaren izena halako moduz aldatuko da non honela geldituko baita:

“II. TITULUA

Aplikatzekoak diren xedapen, arau eta neurri orokorrak eta berariazkoak”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

9. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

9. artikulua izenburuan ondokoa gehitzea: “Irigarritasun globalaren kudeaketa,” halako moldean non 9. artikulua izenburua honela geldituko baita:

“9. artikulua. Irigarritasun globalaren kudeaketa eta erregelamendu bidezko garapena.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

10. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lehenbiziko lerrokadaren amaieran, “Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeari” espresioaren ordez honako hau ipiniko da: “berariaz horretarako eratuko den Irigarritasuna eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluari kontsulta egin ondoren”.

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, xedea baita sektorea ordezkatzeko duten entitateei partaidetza eskaintzea.

11. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

9. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 9. artikulua amaietan honako testua gehitzea proposatzen da:

“Betiere, Foru Komunitateko administrazio publikoek honako arau hau bete beharko dute: UNE 170001-2:2001, Irisgarritasun globala. Inguruaren irisgarritasuna errazteko irizpideak eta 2. zatia: irisgarritasun globala kudeatzeko sistema. Irisgarritasun globala kudeatzeko sistema bat ezartzea beharrezkoa izanen da eraikitako inguruaren edozein alde, ondasunak eta zerbitzuak irismenean edukitzeko aukerak bermatzeko, bai eta pertsona guztiek haiek autonomia handiagoz erabili ahal izatea ere, alde batera utzirik beren adina edo balizko ezgaitasuna.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetu egiten du, administrazio publikoek berariazko araudirik egin ezean nahitaezkoa den UNE arau bat jasotzen baita.

12. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

9. artikulua ondoen artikulua berri bat gehitzea, honako testua izanen duena:

“xxx. Artikulua. Diskriminazioaren aurkako neurriak eta ekintza positiboko neurriak.

Diskriminazioaren aurkako neurriak.

1. Diskriminazioaren aurkako neurritzat jotzen dira helburu gisa daukatenak saihestea edo zuzentzea ezgaitasunen bat duen pertsona bat zuzenean nahiz zeharka onberatasun gutxiagoz tratatua izatea halakorik ez duen beste pertsona bat baino, antzekoa edo konparagarria den egoera batean.

2. Diskriminazioaren aurkako neurritzat joko dira jazarpen-ekintzak debekatzen dituztenak, eta exijitzen dutenak irisgarritasun unibertsala, ororentzako diseinua eta, irisgarritasun unibertsala exijitzea posible ez denean, arrazoizko egokitzapenak egin beharra, pertsona guztien erabilera eta iris-

mena erdiesteko. Administrazio publiko eskudunek laguntza publikoen araubide bat ezarri ahalko dute, arrazoizko egokitzapenak egin beharretik eratorritako kostuei aurre egiten laguntzeko.

Ekintza positiboko neurriak.

1. Ekintza positiboko neurritzat jotzen dira berariazko laguntza batzuk, bideratuta daudenak ezgaitasunen bat duten pertsonak bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean txertatzeko eta osoki parte hartzeko dauzkaten desabantailak edo zailtasun bereziak prebenitu edo berdintzera, ezgaitasun-mota eta -gradu ezberdinak aintzat harturik.

2. Ekintza positiboko neurriak mamitu ahalko dira laguntza osagarrietan eta arau, irizpide eta jokabide onuragarriagoetan. Laguntza osagarriak honakoak izan ahalko dira: laguntza ekonomikoak, laguntza teknikoak, laguntza-zerbitzu pertsonala, zerbitzu espezializatuak eta komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarriak.

Oinarrizko baldintzak.

Oinarrizko irisgarritasun-baldintzek eta diskriminaziorik ezari buruzkoek neurri zehatzak, 3. artikuluan adieraziak, ezarriko dituzte esparru edo arlo bakoitzerako, diskriminazioak prebenitu edo ezabatzeko, eta desabantailak edo zailtasunak berdintzeko. Xedapenak ezarriko dira honako alderdiei buruz, gutxienez ere:

a) Sektore edo arloan erabilitako eraikin eta inguruneen, tresna, ekipo eta teknologien eta ondasun nahiz produktuen irisgarritasun-betekizunak. Bereziki, instalazioen oztopoak kentzea eta ekipoak nahiz tresnak egokitzea.

b) Esparru edo alor bakoitzeko baliabideen irismen-, partaidetza- eta erabilera-baldintzarik onuragarrienak eta arau, irizpide eta jokabideetan diskriminaziorik ez egoteko baldintzak.

c) Laguntza osagarriak, hala nola laguntza ekonomikoak, sostengurako laguntza teknologikoak, zerbitzu edo tratamendu espezializatuak eta bestelako zerbitzu pertsonalak.

d) Barne-arauak ezartzea enpresetan edo zentroetan, ezintasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari dagokionez pairatzen dituzten desabantailen edo diskriminazio-egoera orokorren ezabaketa sustatzen dutenak edo helburu horretarako pizgarri direnak.

e) Irisgarritasun-betekizunak ezartzeko eta baldintzarik onuragarrienak eta diskriminazioaren aurkakoak ezartzeko planak eta egutegia.

f) Kasuko esparruan irisgarritasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko baliabideak eta bitartekoak, pertsonalak nahiz materialak.

Oinarrizko irisgarritasun-baldintzak eta diskriminazioaren aurkakoak araututa daude Aukera Berdintasunari, Diskriminazio Ezari eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Legea garatzeko araudi-an, zeina lege honek bereganatu beharko baitu.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, diskriminazioaren aurkako neurriak eta ekintza positiboko neurriak jasotzen dituenez.

13. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

III. tituluko I. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa. Goiburuari “eta parte-hartzea” espresioa gehituko zaio, halako moldez non III. Tituluko I. kapitulua honela geratuko baita:

“I. KAPITULUA
Sustapena, bultzada eta parte-hartzea”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, ukitua gertatzen den sektorearen parte-hartzearen existentzia jasotzen duenez.

14. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

10. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 10. artikuluari lau lerrokada berri gehitzea, eta artikulua horretako lerrokada guztiei dagokien zenbaketa egitea; horrenbestez, bigarren lerrokada bosgarren bihurtuko da, ordenaturiko zenbaketa berriaren arabera. 10. artikulua testua honela geratuko da, lau lerrokada berriak txertatu ondoren:

“10. artikulua.

1. Administrazio publikoek irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua bermatu beharko dituzte lege honetan deskribaturiko alorretan, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izanda ere. Horretarako, exijitu beharko dute proiektuak egokitu daitezen foru lege honetan eta berori garatuko

duten erregelamenduetan ezarritako parametroetara.

2. Sentsibilizazioa, prestakuntza eta diskriminaziorik ezaren nahiz aukera-berdintasunaren sustapena, irisgarritasun unibertsalarekin batera, gizarteko sektore guztienganaino iristea lortzeko premiazko ekintzak dira, eta ezgaitasunen bat duten pertsonen beren ekarpenak beharrezkoak diren esparru guztietan parte har dezaten sustatuko da.

3. Administrazio publikoek garatu eta sustatuko dituzte informazio-jarduerak, sentsibilizazio-kampainak, prestakuntza-ekintzak eta aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapenerako beharrezkoak diren bestelakoak.

4. Horretarako, sustapen-lana eginen da, ezgaitasunen bat duten pertsonen nork bere kasa nahiz beren ordezkari-erakundeekin bitartez parte har dezaten, ezgaitasunarekin zerikusia duen orotan, haiek zeresana daukatenean erabakien prestakuntzan, taxuketan eta hartzean, eta administrazio publikoen zeregina da, bakoitzaren eskumenen esparruan, parte-hartze hori egiazkoa eta eraginkorra izan dadin ziurtatzeko baldintzak sustatzea. Era berean, aurreikusten da pertsona horiek presentzia iraunkorra izatea administrazio publikoetako partehartze- eta aholkularitza-organotan, baldin eta organo horien eginkizunek zuzeneko zerikusia badute ezgaitasunen bat duten pertsonentzat eta beren familientzat lehentasunezko interesa duten alorretan eragina duten gaiekin.

5. Administrazio publikoek sustatuko dituzte ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza beregaina errazteko beharrezkoak diren jarduerak, parte hartzea eta onartuak izatea eskatzen duten pertsonen horretarako aukera izan dezaten behar diren baldintzak ezartzen dituzten programen bitartez.

6. Administrazio publikoek erraztasunak eta laguntza eman dizkiote araudi teknikoaren garapenera, eta dagoen araudiaren berrikuspenari, halako moldez non ziurtatuko baita diskriminaziorik ez egotea teknologia, produktu, zerbitzu eta ondasunen prozesu, diseinatze eta garapenean, horretarako lankidetzan arituz normalizazio- eta zertifikazio-entitate eta erakundeekin eta zeresana duten eragile guztiekin, ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza-kalitatea ziurtatzearen.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, ukitua gertatzen den sektorearen partehartzearen existentzia jasotzen duenez.

15. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

11. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

16. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

12. artikulua osoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontu oso teknikoa da, zeresana duten sektoreen adostasunarekin bere garaian arautu beharko dena.

17. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

III. tituluko II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa. Goiburuari "eta defentsa-neurriak" espresioa gehituko zaio, halako moldeaz non III. tituluko II. kapitulua honela geratuko baita:

"II. KAPITULUA

Betetzea, kontrola eta defentsa-neurriak"

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, arbitraje-aukeraren existentzia jasotzen duenez.

18. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

13. artikulua ondoen artikulua berri bat gehitzea, honako testua izan dena:

"XX. Artikulua. Arbitrajea

Alderdiek beren burua arbitraje-sistemaren esanetara jartzea borondatezkoa izan den da, eta espresuki adieraziko da, idatziz.

Arbitraje-organoak osatuko dituzte interesdun diren sektoreen ordezkariak, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta beren familiak ordezkatzeko dituzten erakundeen ordezkariak eta dagokien eskumen-esparruan jarduten ari diren administrazio publikoen ordezkariak. Aukera-berdintasunerako, diskriminazioaren aurkako eta irisgarritasun unibertsalerako arbitraje-batzordea da arbitraje-sistemako kudeaketa- eta administrazio-organo kolegiatua. Foru Komunitatean aukera-berdintasunerako, diskriminazioaren aurkako eta irisgarritasun unibertsalerako arbitraje-batzorde bat eratuko da, zeinaren jardueraren lurralde-esparrua bat etorriko baita Nafarroaren lurraldearekin.

Arbitraje-sistemaren langai izan den dira ezintasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari dagokienez sortzen diren keak eta erreklamazioak.

Desadostasunak honako gai hauetakoren bati buruzkoak izan den dira:

a) Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea.

b) Urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak.

c) Garraiobideak.

d) Ondasun higigarri eta higiezinak, produktuak, zerbitzuak, jarduerak edo funtzioak, kontsumitzaileei azken erabiltzaile gisa zuzenean merkatu-ratzen zaizkienak, eta pertsona fisiko edo juridikoek, norbanakoek nahiz kolektiboek, profesionalek edo establezimendu publiko edo pribatu, finko nahiz ibiltarietako titular direnek, produzitzen, eskuratzen, hornitzen edo igortzen dituztenak, zuzenbide pribatuko araubidean.

e) Zuzenbide pribatuaren alorreko harremanak administrazio publikoekin.

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat inguru-neak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatu, produzitu, hornitu edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek iragarri ahalko dute Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko aukera-berdintasunari, diskriminazioezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko arbitraje-sistemari men egiten diotela, ezgaitasunarekin loturiko aukera-berdintasun, diskriminazioez eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko gero bateko desadostasunei dagokienez. Halaber,

ezgaitasunen bat duten pertsonak eta beren familiak ordezkatzen dituzten erakundeek, bai eta irabazi-asmorik gabeko izaera ekonomikoko erakundeek ere, iragarri ahalko dute arbitraje-sistemari men egiten diotela”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, alderdientzat borondatezkoa den arbitraje-sistema bat ezartzen duenez.

19. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

14. artikuluaurren aurretik artikulua berri bat gehitzea, honako testua izanen duena:

“XX. Artikulua. Legitimazio aktiboa

Ukituak diren pertsonen banako legitimazioa ezertan galarazi gabe, eskubide eta interes zilegi kolektiboen defentsarako legalki gaituak diren pertsona juridikoek prozesu batean jardun ahalko dute horretarako baimena ematen duten pertsonen izenean eta interesen alde, haien eskubide indibidualak defendatuz eta xedetzat izanik aukera-berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubidea bermatzea; jardun horren eraginek pertsona horiek ukituko dituzte.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, defentsa prozesaleko jarduketetarako legitimazio-sistema bat ezartzen duenez.

20. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

14. artikuluaurren aurretik artikulua berri bat gehitzea, honako testua izanen duena:

“XX. Artikulua. Legitimazio pasiboa

Demandatuak izan ahalko dira halako pertsona edo entitateak non, ezgaitasunen bat duten pertsonak diskriminazio-egoeretan ipiniz, foru lege honetan aitorturiko aukera-berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioak urratzen baitituzte.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, defentsa prozesaleko jarduketetarako legitimazio-sistema bat ezartzen duenez.

21. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

14. artikuluan gehiketa egitea. 14. artikuluaurren amaieran honako testu hau gehitzea:

“Arau-haustek izan daitezke:

A) Arinak: lege honek ezarritakoarekiko begiramen-eza irregulartasun formal bat denean.

B) Larriak:

a) Diskriminaziozko ekintzek edo ez-egiteek zuzenean nahiz zeharka eragiten dutenean ezgaitasunen bat duen pertsonari emandako tratua gutxiago faboragarria izatea antzekoa edo konparagarria den egoera batean dagoen beste pertsona bati emandakoa baino.

b) Lege honetako 2. artikuluko G letran definituriko arrazoizko egokitzapeneko neurriak hartzeko ukoa eta irisgarritasun-betekizunak urratzea.

c) Arau honetako xedapenak betetzeko beharrezkoak diren eskumenak dauzkaten organoek ezartzen duten berariazko administrazio-betekizun bat ez betetzea.

d) Ezgaitasunen bat duen pertsonaren gain edo inolako lege-ekintzarik abiarazi duten edo abiarazi nahi duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen gain egindako edozein presio-mota.

C) Oso larriak:

a) Ez-betetze errepikatua, arau honetako xedapenak betetzeko beharrezkoak diren eskumenak dauzkaten organoek ezartzen dituzten berariazko administrazio-betekizunena.

b) Edozein presio-mota, arau honetan eta bere garapen-arauetan jasotako neurrien exekuziorako administrazio-botereen erabileraren esparruan diharduten agintarien gain ezarritakoa”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, arau-hausteen sistema bat ezartzen duenez.

22. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. 16. artikulua-
ren testua osoki aldatzea. Honela geldituko litzate-
ke:

“16. artikulua. Irisgarritasun Unibertsalerako eta
Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdin-
tasunerako Kontseiluaren eraketa eta funtziona-
mendua.

1. Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasu-
nen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren
Sustapenerako Kontseilua eratuko da, Lehendaka-
ritza Departamentuari atxikitako aholkularitza- eta
partaidetza-organo gisa; bertan izanen dira zere-
sana duten Nafarroako Gobernuako departamentu-
en ordezkariak, eta horiez gain, ordezkariak
handieneko elkarteak, xede gisa dutenak ezgaita-
sunen bat duten pertsonen eskubideak defendi-
tzea; halaber, kontseilu horretan izanen dira kon-
tsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak eta
inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak
inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen
dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridi-
koen elkarteak.

2. Kontseiluaren osaera: Kontseiluko lehenda-
kari izanen da Lehendakariak kontseilaria, eta
horrez gain, honakoak izanen dira kontseilukide:

a) Honako alor hauetako bakoitzetik Nafarroa-
ko Gobernuaren ordezkari bana, gutxienez ere
zuzendari nagusi baten mailakoa: Antolamendua
eta Etxebizitza; Berrikuntza; Gizarte Gaiak; Hez-
kuntza; Osasuna; Herri Lanak eta Garraioak; Eko-
nomia eta Kultura.

b) Ezgaitasunen bat duten pertsonen alorrean
ordezkaritza zabalenerakoak diren irabazi-asmorik
gabeko entitateen hiru ordezkari.

c) Ordezkaritza zabalenerakoak diren kontsumi-
tzaile- eta erabiltzaile-elkarteen bi ordezkari.

d) Inguruneak, produktuak, ondasunak eta zer-
bitzuak inportatzen, ekoizten, hornitzen edo esku-
ratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko
nahiz juridikoen elkarten hiru ordezkari.

3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru lege honetan eta bera garatzeko egi-
nen diren erregelamenduzko xedapenetan ezarri-
tako bete dadin sustatzea.

b) Hura betetzeko betebeharra duten entitate
edo pertsonen aholkua ematea gaia dela-eta gerta
daitezkeen arazo guztietan.

c) Teknika arloko aurrerapenak aztertu eta bil-
tzea, bai eta foru lege hau zein berau garatzen
duten erregelamenduak aplikatzean jasotako ira-
dokizunak ere, eta, halaber, legearen helburuak
betetzeko behar adina neurri har daitezkeen bultza-
tzea.

d) Foru lege honen eta berau garatzen duten
erregelamenduzko xedapenen edukia berrikustea
eta haien aplikazioaren eraginkortasuna egiazta-
tzea, bidezkoak diren aldaketak proposatze aldera,
lorturiko esperientzian eta eraginkorrak izan diren
aurrerapenetan oinarrituta.

e) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege
honetan deskribaturiko eskumen-esparruetako
inguruneetan irisgarritasun unibertsalari eta oro-
rentzako diseinuari buruzko baldintzak bete egiten
direla egiaztatzea, eta, beharrezkoa bada, zigor
espedientea abia dezaten proposatzea erakunde
eskudunei.

f) Urtean urteko txosten bat egitea, lege hone-
tako xedapenen betetze-mailari buruz, eta ondo-
ren Parlamentura bidaltzea txosten hori.

g) Arbitraje-batzordeak ezartzea eta arbitraje-
sistemari buruzko auzien betetzearen jarraipena
egitea.

h) Bere antolamendu- eta funtzionamendu-
erregelamendua onestea”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobe-
tzen du, irisgarritasun unibertsala eta aukera-ber-
dintasuna sustatzeko kontseilu bat eratzen baitu.

23. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenke-
ta. Lehenbiziko xedapen gehigarriko bigarren lerro-
kadan “hiru hilabete” jartzen duen tokian “sei hila-
bete” jartzea.

Zioak: Arrazoizkoa dirudi Nafarroako Gobernu-
aren aldetik, edo bere departamentu eskudunaren
aldetik, denbora gehiago egotea kasuko jarduketa-
plana aurkezteko.

24. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarriko lehen lerrokadaren testu osoa honako testuarekin ordeztea:

“Bigarren xedapen gehigarria.

1. Igogailua instalatzea nahitaezkoa izanen da behe-solairua eta jasotako hiru solairu edo gehiago dituzten obra berriko eraikinetan, etxebizitza baterako sarrera hirugarren solairu jasoan edo solairu hori baino gorago dagoenean.

Behe solairua eta jasotako solairu bat edo bi dauzkaten obra berriko eraikinetan, nahitaezkoa izanen da igogailu bat instalatzeko modua emanen duen espazio bat erreserbatzea, baldin eta bi etxebizitza edo gehiagotarako sarbide diren eskailerak badaude.

Jadanik eginda dauden etxebizitzetan, Jabetza Horizontalari buruzko Legeak araututakoari eutsiko zaio, bai eta aplikatzeakoak diren foru araudiaren bidezko eguneratzeetan araututakoari ere”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

25. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Gorrei, entzumen-egaitasunak dituztenei eta gor-itsuei dagozkien irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko alderdiak egokitu beharko zaizkio urriaren 23ko 27/2007 Legeak ezarritakoari, zeinaren bitartez aitortzen baitira Espainiako zeinu-hizkuntzak eta arautzen baitira gorren, entzumen-egaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak, bai eta hura garatzen duen araudiak ezarritakoari ere”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, entzumen-egaitasuna duten, gor diren

eta gor-itsu diren pertsoneri laguntzeko bitartekoei buruz erregelamendu-garapenari dagokion ikuspegi bat aintzat harrarazten baitu.

26. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarren xedapen gehigarria. Sustapen publikoko etxebizitzetatik ezgaituentzat erreserbatuturiko ehunekoak etxebizitza horien barnealdea behin betiko banaketarik gabe mantendu beharko du, gutxienez ere eskaintza publikotik sei hilabete igaro bitartean, esleipen-hartzailearen ezgaitasunaren ondoriozko beharizanetara egokituak izateko. Kasua bada, sustatzailea behartuta egonen da egokitzapen horiek egitera. Foru Gobernuak sei hilabeteko epean arautuko ditu beharrezkoak diren gutxieneko egokitzapenak”

Zioak: Proposatuturiko foru legearen testua hobetzen du, beharrezkotzat ezartzen baitu babes ofizialeko etxebizitzetara dagozkien neurriak arautzea, bai eta etxebizitza horiek ezgaitasunaren bat duten pertsoneri egokitzea ere.

27. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Lerrokadaren amaieran, legearen izenburua ordeztu edo zuzendu egiten da, halako moldean non behin betiko izenburuarekin bat etorriko baita:

“[...] egokitu egin beharko dira irisgarritasun unibertsalari eta pertsona ororentzako diseinuari buruzko foru lege honetan xedatutakora”

Zioak: Foru legearen izenburua teknikoki zuzentzea besterik ez.

28. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen iragankorra

Une honetan aplikatzekoak diren irisgarritasun-arauek erabateko indarra izanen dute lege honetan ezarritako arau-garapenek indarra hartzen ez duten bitartean”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, zenbait alderdi argitzen baititu gaur egun jadanik aplikaturiko neurrien indarraldiari buruz.

29. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Foru lege honetako lehenbiziko eranskinean xedaturikoa garatuko da egoki den erregelamendu-prozeduraren bitartez”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, beharrezkotzat ezartzen baitu garraio-txartelari dagozkionak garatzeko erregelamendu-prozedura bat aurrera eramatea.

30. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa. Azken xedapenetatik lehenaren bigarren idatz-zatia zeharo aldatzea, honela gera dadin:

“2. Nafarroako Gobernuak, gehienez ere foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, eta ukituriko alderdiekin adosturik, irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzeko kon-

tseilua eratuko du, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du, zenbait alderdi argitzen baititu gaur egun jadanik aplikaturiko neurrien indarraldiari buruz.

31. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpenari kenketa egiteko zuzenketa. Honako lerrokada hau kentzea:

“Espainiako Konstituzioak 49. artikuluan botere publikoak premiatzen ditu ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko politika egitera, pertsona horiek gainerako herritarren eskubide berak baliatu ahal izan ditzaten.”

Zioak: Zuzendutako testuan jadanik sartua izan den ideia bat errepikatzen du.

32. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
 FORU PARLAMENTARIEN
 ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Zioen azalpeneko azken-aurreko lerrokadaren barranean, honako ordezen hau egitea: “Halaber, zenbait eginkizun osagarri esleitzen zaizkio jarraipen batzorde bati, zeinak jasoko baitu Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako abenduaren 3ko 51/2003 Legearen 15. artikuluan adierazitako espiritua, alegia ezgaitasunen bat dutenen sektoreak dagozkion politiketan parte hartzeari buruzkoa” dioen testuaren orde, beste bat ipintzea. Honako hau, hain zuzen:

“Halaber, irisgarritasun unibertsalerako eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aukera-berdintasunerako kontseiluari jarraipen-zeregina eta bete behar dituen zeregin osagarriak esleitzen zaizkio. Kontseilu horrek jasoko du Ezintasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako abenduaren 3ko 51/2003 Legearen 15. artikuluan adierazitako espiritua; alegia, ezgaitasunen

bat dutenen sektoreak dagozkion politiketan parte hartzeari buruzkoa.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

33. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa. Lerrokada bat gehitzea, honela hasten den lerrokadaren aurretik: “Hogei urte baino gehiago igaro dira Oztopo Fisikoei buruzko Legea onetsi zenetik...”

Gehitu beharreko testua:

“Irisgarritasun unibertsala nahitaezko baldintza da gizartea osatzen duten pertsona guztiek aukera-berdintasunean beren eskubideak erabili ahal izateko, eta haien giza duintasunaren nahiz beren nortasunaren garapen aske eta osoa erdiesteko”.

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

34. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpenari lerrokada bat gehitzea, honela hasten den lerrokadaren aurretik: “Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa...”

Gehitu beharreko testua:

“1978ko Espainiako Konstituzioak bere artikuluetan zehar zenbait arau jasotzen ditu, zeinetan, modu ezberdinetan, pertsona guztien eskubideak defendatu eta babestu egiten baitira, edozein dela ere pertsona horien egoera fisikoa, burukoa edo soziala.

Horrela, 1. artikulua herritar guztien berdintasuna eta askatasuna ezartzen ditu, eta zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren erudia aitortzen da.

9.2 artikulua botere publikoak behartzen ditu bideak jartzera norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezzen; askatasun eta berdintasun xede hori galazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzera, eta herritar guztiei aukera egokia ematera bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.

Horrela, bada, askatasun eta berdintasun printzipioa irisgarritasun unibertsalarekin elkartu behar da, zeren eta, zenbait kasutan, bata ezin izanen baita bestea gabe existitu.

Bestalde, Konstituzioko 49. artikulua araber, botere publikoek aurreikuspen, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze politika egiten dute gutxiti fisiko, sentsorial eta psikikoei dagokionez; beharrezkoa duten laguntza espezializatua emanen diete, eta bereziki babestuko dituzte titulu horrek herritarrei ematen dizkien eskubideak (eskubide sozial eta ekonomikoak) gozatu ahal izan ditzaten.

Halaber, Konstituzioko 10. artikulua aipatzen du ezen Konstituzioak aitortzen dituen oinarriko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari eta gai honetan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei begiratuko zaiela.

Azken puntu horri dagokionez, azpimarratu beharrekoa da gai hau garatzen duen nazioarteko araudia. Besteak beste, aipatzekoa da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioa, 2006ko abenduaren 13koa, gure herrian barne-zuzenbidea dena, zeinak babestu eta bermatu egiten baititu ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak bizitzako arlo guztietan (hezkuntza, osasuna, lana, kultura, aisia, parte-hartze sozial eta ekonomikoa), eta irisgarritasuna azaltzen du arlo guztietara hedatzen den zeharkako elementu gisa.

Horregatik, garrantzi berezia hartzen du lanabes juridiko honen barruan, eta, horrela, aitortu egiten du irisgarritasunak duen garrantzia ingurune fisiko, sozial, ekonomiko eta kultural, osasun, hezkuntza, informazio eta komunikazioei dagokionez, halako moldez non ezgaitasunen bat duten pertsonak osoki erabili ahal izanen baitituzte giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak.

Nazioarteko arau horretako 2. artikulua definitzen du *komunikazio* gisa ulertzen duguna (lengoaiak, testu-bistaratzeta, braille-a, ukipen bidezko komunikazioa, makrotipoak, irisgarritasun errazeko multimedia-gailuak, idatzizko lengoia, entzumen-sistemak, lengoia sinplea, ahots digitalizatu-

aren bidezko bitartekoak eta bestelakoak, komunikazioa areagotzeko bitarteko eta formatuak, edo ordeko komunikazio-bitartekoak, informazioaren teknologia eta irisgarritasun errazeko komunikazioak barne), bai eta “arrazoizko egokitzapenak” (beharrezko eta egoki diren aldaketak eta egokitzapenak, zama neurrigabea edo behar ez bezalako ekartzen ez dutenak, eta kasu zehatz batean beharrezkoak direnean, ezgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubide eta funtsezko askatasun guztien gozamina edo erabilera bermatzeko) eta *ororentzako diseinua* ere (produktu, ingurune, programa eta zerbitzuak diseinatzea, pertsona guztiek erabili ahal izateko modukoak, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik behar gabe, ahal den neurrian), eta oinarritzko elementutzat jotzen ditu erabateko irisgarritasuna lortzeko eta, horrela, irisgarritasun unibertsala konbentzioaren printzipio orokorretako bat dela aitortzeko.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

35. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpenari lerrokada bat gehitzea, honela hasten den lerrokadaren aurretik: “Halaber, lege proposamenaren xedea ere zabalduko da 1988ko Oztopoei buruzko Legean jasotzen ez diren alortara...”

Gehitu beharreko testua:

“Irisgarritasun unibertsala, ororentzako diseinua, gizarteratzea (bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean), aukera-berdintasuna, bizitza beregaina, elkarrizketa zibila, arrazoizko egokitzapenak, normalizazioa eta zeharkakotasuna, guztiak indarrez agertzen diren kontzeptu/printzipioak dira, nazioarteko ezgaitasun-politika berriei gehiago egokitzen zaien esanahia daukatenak, eta printzipio modernoagoak hartzen dituztenak, ezgaitasunen bat daukaten pertsonen buruzko ikusmolde berriari loturikoak.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

36. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpenari lerrokada bat gehitzea, honela hasten den lerrokadaren aurretik: “Administrazioak edo organo eskudunak premiatzen dira foru legean xedatutakoa bete eta kontrola dezaten...”

Gehitu beharreko testua:

“Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko foru lege honek oinarri gisa hartu beharko du Aukera Berdintasunari, Diskriminazio Ezari eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Legea; horrenbestez, bigarren belaunaldiko araudi bat sortuko da, irisgarritasunari buruz lehenago zegoen araudiaren bitartez berdintasunaren oinarriak ipini ondoren, ezgaitasunen bat duten pertsonen berriazko beharrezko konbentzioaren konstantzia utzita, baina haien eskubideen etengabeko hobekuntza baterantz begira, esparruak eta gara daitezkeen harremanak zabalduz. Lotura bat ezarri beharko da, jadanik ezgaitasun zehatz batera mugatuta ez dagoen giza talde baten interesen eta oro har gizartearen hobekuntzaren artean, eta hori guztia, administrazio publikoek beraien herritarren ongizatearen bermatzaile diren aldetik beren buruari exijitu behar dizkieten interes eta betebeharrekin.”

Zioak: Foru lege proposamenaren testua hobetzen du.

37. ZUZENKETA

UPN, PSN ETA NABAI
PARLAMENTU-TALDEEK ETA
CDN ETA IUN-NEB
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEEK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa. Ordezpena egitea, halako moldez non “eta oztopo fisikoak eta zentzumenezkoak kentzeari” hitzen ordeztu “ororentzako diseinuari” ipiniko baita, eta beraz, legearen izenburua honela geratuko da:

“Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko Foru Lege proposamena”

Zioak: Titulu berriak foru legearen espirituari egokituagoa dirudi.

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak

aurkeztu zuen eta 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru

parlamentariaren elkarteak aurkeztu zuen eta 2009ko urriaren 23ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte.

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2010eko otsailaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta inbertsio zehatzak eta hurrengo urteerako negozioaren garapena jasoko dituen bideragarritasun plan bat aurkeztu arte.

- Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da aipatu abalak emateko baldintza gisa jar dezan langilerik ez kaleratzea eta Enpresa Batzordearekin egiazko negoziazio-prozesu bat abian jartzea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilera eta garapena susta ditzan.

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2010eko otsailaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilera eta garapena susta ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da software librearen eta estandar irekien erabilera eta garapena susta ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Administrazio Publikoan software librearen eta estandar irekien erabilera susta dezan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko uztailaren 22ko 11/2007 Foru Legea betez.

2. Nafarroako Parlamentuak foru gobernua premiatzen du software librearen eta estandar irekien industria garatzean azpimarra jartzen duten I+G+B ekimenak susta ditzan, arreta berezia eskainiz tokiko enpresen ehunari eta horretarako foru erkidegoko unibertsitateek eta zentro teknologikoei eskaintzen dituzte aukerak aprobetxatuz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko errikuntza, Hezkuntza Batzordeak, 2010eko otsailaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpon ditzan D ereduan eskolatutako eta bizi diren tokietan –Zangoza, Tafalla...– Bigarren Hezkuntzako eskaintzarik ez egoteagatik Iruñera atxikita dauden ikasleek pairatu behar dituzten arazo gehituak, eta ikasle horiek atxiki ditzan haien helmugako lekutik –kasu honetan, autobus geltokitik– gertu dagoen D ereduko Bigarren Hezkuntza ikastetxe batera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaz hitzarmen bat sinatuz, AEK eta IKA erakundeekin, helduei euskaraz irakasteko eginkizuna bete dezaten. Hitzarmen horren bidez ziurtatuko zaie nahikoa baliabide ekonomiko izatea, prestakuntza beharren arabera, baita xede horretarako dauden baliabideen plan-gintzaren eta antolamenduaren arabera ere.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentzat.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentzat."

Legebiltzarrak 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010etik 2017ra bitarteko Errepideen Plan Zuzendarian sar dezan Zangozako zubi berriaren obra.

Legebiltzarrak 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpleguko zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 18an egindako bileran, erabaki zuen Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpleguko zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan".

Mozio hori 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2010eko otsailaren 19an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan".

Mozio hori 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralarko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 18an egindako bileran, erabaki zuen Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak noiz zuzenduko dituen Aralarko San Miguel santutegiko sarbideko seinaleak, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko urriaren 9ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 18an egindako bileran, erabaki zuen Román Felones Morrás jaunak aurkezturiko galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria izendatzeko.

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 25. artikularekin bat, eta behar den gehiengoarekin, Heliodoro Robleda Cabezas

jauna izendatu du Nafarroako Comptos Ganberako lehendakari, sei urteko aldirako.

Iruñean, 2010eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda
